

IKASTETXEA HUSTEA



Ohizkoa ez bada ere, gerta daiteke ikastetxean sute bat sortzea; horregatik, komenigarria izaten da horrelako egoera batean nola jokatu behar den jakitea. Hemen behean dituzu halako ezbeharren bat gertatuz gero kontuan hartu beharreko aholkuak:

1. Ikastolan sutearen txirrina entzutean, urduri jarri gabe, itxi leihoak eta jarri ilaran.




2. Irakasleak ikastetxetik ateratzeko bidea eta kanpoko bilgunea ezagunak izango dituenek, haren aginduei jarraitu behar diezue une oro.



3. Gelan egon behar duzue irteteko txanda iritsi arte. Ikastolako arduradun bat etorriko da gelara abisatzera, irteteko unea denean.



4. Gelatik lasai eta lasterka egin gabe irten behar duzue, eta, ilarako azkenak argia itzali eta atea itxi beharko du.



5. Gelatik irteterakoan ez bultza egin inori, patxadaz ibili eta ez pilatu.



6. Korridoretik kalera ateratzeko, paretaren kontra ilaran joan, eta irakasleak esandako bilgunean elkartu.



7. Ikastetxe barruan zerbait utziz gero, edozer dela ere, ez itzuli barrura.



8. Ez erabili igogailua.



9. Beren kabuz ateratzeko zailtasunak dituztenei edo laguntza behar dutenei lagundu egin behar zaie, betiere, irakasleak emandako aholkuei jarraituz.



ULERMENA: IKASTETXEA HUSTEA

1. Ikastolan sutearen txirrina jotzen duenean zer egin behar da?

2. Noren aginduak jarraitu behar ditut halako egoera batean?

3. Nor etorriko da gelara gure irteteko txanda iritzi zaigula esateko?

4. Zeregin beharko du ilarako azkenengoak?

5. Gelatik irteterakoan nola joan beharko gara?

6. Korridoretik kalera ateratzeko.... (aukeratu)

7. Zer egin beharko dut barruan zerbait uzten badut?

8. Noren aholkuak jarraitu behar ditut bere kabuz ateratzeko zailtasunak dituztenei laguntzeko?

9. Zergatik da garrantzitsua halako egoeran zer egin behar dugun jakitea?

10. Zer dira testuan agertzen diren esaldiak? (aukeratu 2 eta x ipini.)

aholkuak

txorakeriak

lelokeriak

gomendioak